

ARRANOA TA AZERIA

Arranoa ta azeria bein lagun egin ziran, ta, itz-aspertuz maite-min ori gero ta geiago lotzearren, alkarren ur bizi izatea erabagi eben. Arranoak, beraz, tantai-kokotzean egin eban abia; azeriak be, antxe ur-ur, txapar artean ipiñi ebazan bere kumeak. Alkarren ur ta adiskide on.

Baiña, ona zer jazo: egun batean arranoak, zer jan bearrez eizera urtenik, txaparretara egaz eginda, azerikumeetatik nagusienari oratu ta jan egin eban, ondoren anaitxoak esan ebenez.

Azeria itzuli ta zer gerta zan jakiñik, txito samindu zan, ta kumearen eriotzagaitik baiño geiago, bere auzokoa zigortu ezin ebalako. Ordukoz madarikatu besterik ez eban egin: au makalak eta diruz urriak egin oi dabe.

Baiña egunak juan ziran, ta len onen maita eban adiskide urrekoari agurrik be egiten ez eutson arrano ego zabalak, auntz bat il eben lekura egaz egin ta onen zati bat jasotean, ezotasunez aragiari oratuta egozan txingar batzuk be batera eroan zituan. Onetan, aire zakarra sorturik, sugar itzala egin zan; arranokumeak ezin egazik egin, oraindik lumabako ziran-eta; estu ta larri, il-urren aurkitzen zirala, bera jausi ziran errukarriak. Eta gure azeriak, bape kezka barik, bat eta bi, ziran guztiak, goian karraxi mingotzez egazka ebillen arranoaren begi aurrean, iruntsi ebazan.

Adiskide-legeak
austen dabezanak,
izango dauz miñak
ondo mereziak.

